Kantonamendu hauteskundeak Hego-Angelu

Bonnetek utzitako aulkiaren bila

14.315 angeluarrek kontseilari nagusia hautatzeko aukera izanen dute igande honetan

Hur Gorostiaga / **Angelu**

Michel Bonnet Angeluko auzapez eta kontseilari nagusia zendu ondoren, Kontseilu Nagusian bere aulkia agintaldi honetako urte eta erdian beteko duena zortzi hautagairen artean hautatuko dute igandean angeluarrek. Ez dirudi hautagairen batek lehen itzulian gehiengoa lortuko duenik. Ondorioz, ondoko igandean boz gehien jasotzen dutenen artean hautatu beharko dute. Angeluren garatze azkarra eta elkarbizitza arazoak dira bozetako gai nagusia. Hona hemen aurkezten diren zortzi hautagaien iritziak.



ANGELA MEJIAS

Angeluko Herriko Etxearen irudia.

GALDERAK **1.** Zein dira zure ustetan Hego-Angelurendako lehentasunak? **2.** Pirinio Atlantikoetako departamendua egitura egokia ote da Angelu eta Ipar Euskal Herriko interesen defendatzeko? **3.** Zergatik erabaki duzu bakarrik aurkeztea eta ez eskuinaren / ezkerraren / abertzaleen arteko batasunean? **4.** Bigarren itzulirik baldin bada, zein izanen da zure jokaera?

Françoise Come • Berdeak

«Oinezko eta bizikletendako bideak nahi ditut»



1. Angelu hiri baten karikatura da, saltegi handiekin eta errepide ugarirekin. Nire asmoa garapen orekatuagoa lortzea da, saltegi handi gutiagoz eta enpresa sorrerak Maignon bezalako industri eskualdeetan lagunduz. Hiriak elkarbizitzarako gunea izan behar du, garraio kolektiboak eta oinezkoen eta bizikletendako ibilbideak sortuz.

2. Ez. Batez ere Ipar Euskal Herriarendako Euskal Departamendua beharrezkoa da kostaldea eta barnealdearen arteko desoreka gelditzeko. Gainera, Euskal Departamenduan ELB laborari sindikatuak gehiengoa izanen luke, eta hori ona da.

3. Errazagoa da zerrenden arabera egiten diren hauteskundeetan bateraturik aurkeztea. Kasu honetan hautagai bakarra da, eta garrantzitsua da bakoitzak bere mezua helarazteko aukera ukan dezan. Gainera, hauteskunde hauetan aurkezten den emakumezko bakarra naiz, eta gure ahotsa entzunarazi beharra ikusten dut.

4. Hautesleek erabaki beharko dute. Lehen itzulian nagusitzen direnei galdeketa bat bidaliko diegu, eta emandako erantzunen arabera erabaki dezatela gure hautesleek.

Jean Jacques Doihenart • PC

«Eskuina garaitu behar dugu»



1. Lehentasuna eskuina garaitzea da. Aukera paregabea dugu, eskuinean botererako borrokan ari baitira. Elf-Aquitaine lantegian lan egiten dut, eta enpresa horrek sekulako irabaziak ukanik ere, milaka langile kanporatu nahi ditu. Justuki eskuinak defenditzen duen liberalismo hori salatzea da nire helburua.

2. Departamendua egitura baliosa da nire ustez. Egitura demokratikoa da, eta jendeenganik hurbila. Ondorioz, Euskal Departamendu batek demokrazia eta hurbiltasun gehiago ekarriko luke. Baina baldintza batekin, departamendu horrek Frantziako Errepublikaren baitan segitu beharko du. Hego Euskal Herrian udal kontseilariak erail izana izugarria izan da, eta nazionalismoak beldurra ematen dit. Erreferendun bitartez erabaki behar da departamendu berria sortu ala ez.

3. Angeluko alderdi ezkertiarrekin hautagaitza bateratua proposatu nuen. Baina ezberdintasuna aberastasun gisa ikusten dugu. Horregatik nire lana, sozialista eta ekologistak ezker aldera bultzatzea da.

4. Ezkerreko hautagaietarik boz gehien eskuratzen duenaren alde jokatuko dugu, eta espero dut hori ni izatea.

Ramuntxo Kanblong • EAJ

«Angeluk koordinaketa lana egin behar du»



1. Euskal Departamendua eta Lurralde Eskemaren obratzea dira lehentasun nagusiak niretako. Hego-Angeluren geografia kokapena ikusirik, bere eginbeharra Baiona-Angelu-Miarritze aglomerazio mailan eta Ipar Euskal Herriko barnealdeari buruz koordinaketa lana egitea da. Ekonomi mailan, tokiko iniziatibek sustengu berezia ukan behar lukete. Zientzia fakultatea hor eraikiko baita, uste dut lurralde horretan garrantzia berezia izanen duela. Gisa berean Hegoaldearekiko harremanak garatu behar ditu.

2. Euskal Departamendua lehenbailehen ukan behar dugu. Euskararen irakaskuntza orkortzeak eta ofizialtasunak ere berehalako lorpenak izan behar dute. Gaskoinaren irakaskuntza ere lagundu behar da.

3. Anitz mintzatu da gai horretaz. Nik uste abertzaleen arteko malestrukeria izan dela maleruski. Bestela egin zitekeen .

4. Dena dela guk baldintzak pausatuko ditugu eta jasotzen dugun erantzunaren arabera hartuko dugu norbait sustengatzeko erabakia ala ez. Euskal Departamenduaren gaia izanen da garrantzitsuena.

Manex Goienetxe • AB

«Auzoguneak bizigune bilakatu nahi ditugu»

1. Angelu osoarentzat bezala, lehen lehentasuna instituzio baten ukaitea da. Edozein egitasmo aitzinarazteko instituzio bat behar da, eta gaur egun ez dago. Bes-

